

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2025eko uztaila

Aurkibidea

1. Aurreikuspen berriak
2. Inflazioa
3. Enpresen konfiantza
4. Sentimendu ekonomikoa
5. PMI konposatua
6. ELGaren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko BPGak hazkunde erritmo egonkorrari eusten dio.

Aurreikusten da aurten %2,1 eta datorren urtean %1,7 haziko dela.

2. EAEko inflazioa %2,4ra jaitsi zen maiatzean.

Azpiko inflazioa berriro moteldu zen eta indize orokorrera hurbildu zen.

3. EAEko enpresak baikorrak dira oraindik etorkizunari begira.

Laboral Kutxak egiten duen indizea 54,6an dago eta horrek jardueraren hedapen nabarmena adierazten du.

4. Sentimendu ekonomikoak okerrera egin du eurogunean eta Europar Batasunean.

Industriari buruzko igurikimenek batez besteko historikoren azpitik jarraitzen dute.

5. Europako ekonomiak ez du suspertzeko bidea aurkitzen.

Euroaren eremuko PMI konposatua 50,2an mantendu da ekainean.

6. Munduko ekonomia bizitasuna galtzen ari da merkatutzako tentsioengatik.

ELGak %2,9ra jaitsi ditu munduko ekonomiarako aurreikuspenak 2025ean eta 2026an.



EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA


EAEko BPGak hazkunde erritmo egonkorrari eusten dio

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

2025EKO HAZKUNDEA

%2,1




Testuinguruaren hipotesiak eguneratuta eta argitaratutako azken koiuntura datuak baloratu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Zuzendaritzak aurreikusitako agertoki berria ia ez da aldatzen martxoan aurkeztutakoarekin alderatuta. Zehatz-mehatz adierazita, 2025erako espero zen %2,1eko hazkundeari eutsi zaio, eta 2026koa pixka bat beherantz doitu da, %1,7raino. Barne eskariaren bultzada, aurten %2,3 haziko dena, funtsezkoa izango da EAEko ekonomia %2,0tik gora hazteko.

Zehatzago, 2025ean kontsumo pribatua %2,4 handituko da, enpleguaren sorrerak, inflazioaren apaltzeak eta soldaten eta pentsioen erosteko ahalmenaren hobekuntzak lagunduta. Kontsumo publikoa %2,0 handituko da eta inbertsioa, berriaz, %2,4. Hazkunde horiek konpentsatuko dute kanpo eskariaren eragin negatiboa, 2025ean hazkundeari hiru hamarren kenduko baitzaizkio, eta 2026an bi, esportazioek trakzio txikiagoa izango dutelako, eurogunea ziurgabetasun eta dezelerazio testuinguru batean dagoelako.


GASTUA AZKEN KONTSUMOAN

Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Sektoreka, zerbitzuak izango dira hazkundearen buru 2025ean, %2,5eko hazkundearekin, baina 2026an %1,8ra apalduko dira. Industriak %0,9ko igoera izango du aurten, eta kanpo sektorearen ahuleziak eragina izango du, nahiz eta urte amai-eran suspertzea eta 2026tik aurrera hazkundea egonkortzea aurreikusten den. Eraikuntzari dagokionez, 2025ean %2,1 eta 2026an %1,8 haztea espero da, finantzaketa baldintza hobeei eta etxebizitza eskaera handiak bultzatuta.

2025ean lanaldi osoko 14.000 enplegu inguru sortuko dira eta 2026an, hazkunde apalagoarekin (%1,1), 11.000 lanpostu berri sortuko dira. Azkenik, langabezia tasa %7,0tik behera jaitsiko da hurrengo hiru hilabeteetan, eta 2026an %6,6ra beheratuko da.


ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA

Ehuneko




Iturria: Ekonomia Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

INFLAZIOA

EAEko inflazioa %2,4ra jaitsi zen maiatzean

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Maiatzeko KPIak, urte arteko aldakuntza tasan, %2,4ko balioa izan zuen, aurtengo apirilean erregistratutakoa baino bi hamarren txikiagoa. Beraz, otsailean hasi zen apaltzeko joerak bere horretan jarraitzen du. Zerbitzuek KPIaren gainetik igotzen jarraitzen duten arren, erregaien jaitsierak eta elektrizitatearen igoera neurritsuak inflazioa egonkortzen lagundu dute.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2023	2024	2025eko maiatza	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,6	3,1	2,4	2,4
Azpiko inflazioa (%84,8)	6,2	3,2	2,5	2,1
- Elikagai landuak (%14,8)	12,5	4,6	1,3	0,2
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	1,2	1,2	0,2
- Zerbitzuak (%49,8)	4,3	3,5	3,5	1,7
Hondar inflazioa (%15,2)	-6,4	2,6	1,8	0,3
- Landu gabeko janariak (%6,4)	7,3	4,0	7,2	0,5
- Energia (%8,8)	-17,0	1,0	-1,9	-0,2


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



ELIKAGAIEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




Maiatzean, azpiko inflazioak behera egin zuen berriro, apirileko gorakada txikiaren ondoren, eta %2,5ean kokatu zen, KPI orokorretik gertu. Elikagai elaboratuen eta industria ondasunen prezioen apaltzeak (%1,3 eta %1,2, hurrenez hurren) zerbitzuen %3,5eko gorakada galgatu zuen. Energiaren jaitsierak (-%0,2) ere moderazioa ekarri zion indize orokorrari.

Taldeka, nabarmendu behar da aisia eta kultura (-%2,3) eta garraioa (-%1,5) merkatu direla; jatetxeek eta hotelek (%4,4) eta beste ondasun

ZERBITZUEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



eta zerbitzu batzuek (%4,1), ordea, prezioen igoera oso handiak izan zituzten urte arteko tasan. Landutako elikagaiak, martxoan eta apirilean urte arteko %3,6 igo ondoren, apaltzeko joera hartzen ari direla ematen du, %2,9 garestitu baitziren maiatzean. Antzeko zerbait gertatzen da etxebizitzaren, uraren, elektrizitatearen eta beste erregai batzuen multzoarekin; izan ere, igoera handienak izan zituen lehen hiruhilekoan (hiruhilekoko batez bestekoan %7,5) eta egonkortzeko zantzuak eman ditu orain (%4,0).

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2025eko maiatza

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,4	2,0	1,9
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,9	2,5	2,9
Edari alkoholodunak eta tabakoa	3,7	3,6	4,4
Jantziak eta oinetakoak	1,3	0,5	0,1
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	4,0	3,8	2,2
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,5	0,6	0,5
Osasuna	2,3	1,9	2,7
Garraioa	-1,5	-2,0	-0,8
Komunikazioak	2,1	2,0	-3,5
Aisia eta kultura	-2,3	0,5	1,3
Hezkuntza	0,1	2,5	3,9
Jatetxeak eta hotelak	4,4	4,3	3,6
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	4,1	3,6	4,2

Iturria: INE eta Eurostat.

ENPRESEN KONFIANTZA


EAEko enpresak baikorrak dira oraindik etorkizunari begira

ENPRESEN KONFIANTZAREN INDIZEA.

EUSKADI

2025EKO 3. HIRUHILEKOA

54,6




Laboral Kutxak egiten duen inkestaren arabera, EAEko enpresek baikortasunari eutsi diote hirugarren hiruhilekoari begira, nahiz eta AEBetako muga zergen politikak ziurgabetasun handia sortu duen. Hala eta guztiz ere, enpresen konfiantzaren indizea moteldu egin da aurreko hiruhilekoan erregistratutako 58,0tik oraingo 54,6ra, eta balio horrek nabarmen gaintitzen du inkesta honetan baikortasuna eta ezkortasuna bereizten dituen 50. maila.

Indizearen atal guztiek pixka bat okerrera egin dute aurreko hiruhilekoko emaitza bikainarekin alderatuta, nahiz eta guztiek hedapen eremuan jarraitzen duten. Hori horrela izanda, fakturazioari buruzko igurikimenak 57,2raino leundu ziren, eta azken urteetako baliorik handienetako bat izaten segitzen du. Jarduera adierazleak bi puntu galdu zituen, baina oraindik 53,0an dago, 2024an erregistratu ziren lau balioen gainetik.


FAKTURAZIO IGURIKIMENAK

Indizea




JARDUERA IGURIKIMENAK

Indizea




ESKARIEN IGURIKIMENAK

Indizea




PREZIOEN IGURIKIMENAK

Indizea



ERRENTAGARRITASUN IGURIKIMENAK


Indizea



Aldakuntzak txikiagoak dira beste atal batzuetan, hala nola errentagarritasunean, puntu bat baino ez baitu apaldu balioa, 50,7raino, azken urteetako bigarren baliorik onena, nahiz eta 50. maila baino pixka bat gehiago baino ez izan. Enpleguari buruzko igurikimenean, moteltzea hamarren batzuetakoa baino ez da izan, eta erregistratutako balioak (55,2) baikortasun nabarmena erakusten du. Eskaera berrien gaineko igurikimena ere oso positiboa da (56,2), aurreko hiruhilekoan lortutako maximotik urrundu den arren. Inbertsioari buruzko igurikimenean (52,5) bizitasuna galtzeko profila erakusten dute aurreko aldietako balio sendoekin alderatuta. Azkenik, prezioei buruzko igurikimena ohiko mailetara itzuli dira.


LANGILE IGURIKIMENAK

Indizea



INBERTSIO IGURIKIMENAK

Indizea



Iturria: Laboral Kutxa.



**Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila**



SENTIMENDU EKONOMIKOA


Sentimendu ekonomikoak okerrera egin du eurogunean eta Europar Batasunean

SENTIMENDU EKONOMIKOA. EUROGUNEA

2025EKO EKAINA

94,0

Ekainean, euroguneko sentimendu ekonomiko nabarmen okertu zen, 94,0ko balioan kokatuz, azken hogeita bost urteetako (100) batez bestekoaren azpitik. Azken bi urteetan adierazle horren balioa 93,5etik 96,6ra bitarteko tartean kokatu da modu iraunkorrean, betiere igurikimen ezkortzat har daitekeen eremu batean murgilduta.




Emaitza txar horien arrazoia industrian ikusten da bereziki, azken urteetan batez bestekoa baino zortzi puntu beherago kokatu baita. Egoera ez da positiboa zerbitzuetan eta txikizkako merkataritzan ere, batez bestekoetatik gertu dauden arren. Aitzitik, eraikuntzak jarduera biziko profila erakusten du, batez besteko balioaren gainetik.


SENTIMENDU EKONOMIKOA. EUROPAR BATASUNA

2025EKO EKAINA

94,0




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




Herrialdeen arabeko analisiak erakusten du Frantziaren egoera nabarmen okertu dela, hiru puntu baino gehiago jaitsi baita, 89,6ra arte, pandemiaz geroztik izan duen emaitzarik txarre-
na baita. Sentimendu ekonomikoa osatzen du-
ten atal guztiek irudi negatiboa eskaintzen dute,
batez ere industriak, egoera normala litzateke-
naren ia zazpi puntu beherago baitago. Alema-
niak ez du, oraingoz, goranzko bide sendorik
erakusten, eta 90,7an dago, emaitza txarrekin
industrian eta txikizkako merkataritzan, nahiz
eta familien konfiantzak hobera egin duen.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Herrialde handien artean, Italia eta, batez ere,
Espainia dira irudi baikorrena erakusten dute-
nak. Horrela, Italiak bere batezbestekotik gertu
jarraitzen du, ekainean 98,9ko datuarekin, eta
oso emaitza onak ditu eraikuntzan eta txikizka-
ko merkataritzan, baina industriak gainerako
herrialdeen arazo berberak ditu. Azkenik, Espai-
niak 102,0ko datua du, hau da, batez bestekoa
gainditzen duen bakarra, baina intentsitate pix-
ka bat galdu du aurreko hilabeteekin alderatu-
ta. Kasu honetan, industria batez besteko histo-
rikoan dago, nahiz eta zertxobait okertu den.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Iturria: Europar Batzordea.



PMI KONPOSATUA

Europako ekonomiak ez du suspertzeko bidea aurkitzen


Ekainean, euroaren eremuko PMI indize konposatua 50,2an mantendu zen, eta balio horrek adierazten du hazkundera egon badagoela, baina oso ahula dela. Balioa bat dator maiatzekoarekin, eta, beraz, erritmoaren egonkortasunaz hitz egin daiteke. Zerbitzuen sektorean hobekuntza txiki bat hauteman da, 50,0raino igota, manufakturek dinamismo erlatiboaren irudia ematen duten bitartean (51,0), baina aurreko hilabetetant baino gutxiago.

Emaitza horiek pentsarazten dute lehen hiru hilabeko BPGaren datu onak (hiruhileko arteko tasa %0,6 izan zen), neurri batean Irlandaren ezohiko hazkundeagatik lortu zenak, ez duela jarraipenik izango bigarrenengan. Hala eta guztiz ere, badira hazkundearen aldeko faktore batzuk, hala nola enpresen aurreikuspenak hobetzea eta enplegu mailari etengabe eustea. Alderantziz, energiaren prezioa arazo bat izan liteke etorkizunean.


PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2025EKO EKAINA


50,2




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA




PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




Herrialdeen araberako analisiak adierazten du Alemaniak susperraldi interesgarria izan zuela, maiatzean 48,5 izatetik ekainean 50,4 izatera igaro baita. Manufakturrek (52,6) jarduera ekonomikoaren motorra izaten jarraitzen dute, eta barrualdetik zein, bereziki, atzerritik datozen eskaera berriak berraktibatu dira. Halaber, zerbitzuek (49,4) puntu pare bat hobetu eta hedapen eremura hurbiltzen dira.

Frantzia kontrako norabidean doa, maiatzean 49,3 itxaropentsu izatetik ekainean 48,5 etsigarri izatera igaro baita. Herrialde horretan, manufakturrek ia hiru puntu egin dute okerrera (47,2), eta ez dago argi datu puntual txarra den edo arrazoi sakonagoei erantzuten dien. Bestalde, zerbitzuek (48,7) ez dute ia aldaketarik izan.


PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit




Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila

ELGA-REN AURREIKUSPENAK

Munduko ekonomia bizitasuna galtzen ari da merkataritzako tentsioengatik

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ELGak aurreratu du munduko hazkundera 2024ko %3,3aren ondoren motelduko dela, 2025ean eta 2026an %2,9ko hazkunderarekin, AEBen muga zergen igoerek, eta erantzun gisa ezarriko direnek kaltetuta. Halaber, ziurgabetasunak eragina izango du inbertsioan eta merkataritzan. AEBek hazkunde tasa motelduko du, 2025ean %1,6 eta 2026an %1,5 hazi arte, eta eurogunean, berriz, jarduerak bere horretan jarraituko du (%1,0 2025ean eta %1,2 2026an). Azaleratzen ari diren ekonomien artean, Txinak %4,7raino motelduko du erritmoa 2025ean eta %4,3raino 2026an, pizgarri fiskala gorabehera, eta Indiak, berriz, tasa altuetan hazten jarraituko du.

ELGAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2024	2025	2026	2025	2026
Munduko ekonomia	3,3	2,9	2,9	-0,2	-0,1
AEB	2,8	1,6	1,5	-0,6	-0,1
Eurogunea	0,8	1,0	1,2	0,0	0,0
Alemania	-0,2	0,4	1,3	0,0	0,2
Frantzia	1,1	0,6	0,9	-0,2	-0,1
Italia	0,7	0,6	0,7	-0,1	-0,2
Espania	3,2	2,4	1,9	-0,2	-0,2
Erresuma Batua	1,1	1,3	1,1	-0,1	-0,1
Kanada	1,5	1,0	1,1	0,3	0,4
Japonia	0,2	0,7	0,4	-0,4	0,2
Txina	5,0	4,7	4,3	-0,1	-0,1
India	6,2	6,3	6,4	-0,1	-0,2
Brasil	3,4	2,1	1,6	0,0	0,2


AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



Inflazioak beheranzko bideari jarraituko dio, baina erritmo desberdinetan, ELGAko herrialdeentzat batez besteko tasa %3,6ra jaitsiko baita 2025ean eta %3,2ra 2026an, energia prezioen atzerakadari eta eskaera geldiagoari esker. Hala ere, AEBetan muga zergek inflazioa bultzatuko dute 2025aren amaieran, %4 inguruko maximora arte, pixkanaka apaldu aurretik. Eurogunean, inflazioaren presioa 2024ko %2,4tik 2026ko %2,0ra jaitsiko da, EBZren helburuarekin bat eginez. Testuinguru horretan, arriskuak protekzionismoaren bilakaeraren mende daude oraindik ere: muga zergen gorakadak are gehiago oztopatu lezake hazkundera eta inflazioaren presioak areagotu; distentsio batek, berriz, aurreikuspenak hobetzen lagunduko luke.

TXINAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGA.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
BPG	2,7	2,2	2,4	2,1	2,0	2,1	2,1
Barneko azken kontsumoa	1,7	2,4	2,2	2,3	2,4	2,5	2,4
Familien kontsumoa	1,9	2,4	2,1	2,3	2,4	2,5	2,6
Administrazioaren kontsumoa	1,3	2,3	2,4	2,3	2,3	2,3	2,0
Kapital eraketa gordina	1,8	2,1	2,3	1,7	2,0	2,3	2,2
Barne eskaria	1,8	2,3	2,2	2,2	2,3	2,4	2,4
Esportazioak	1,0	0,1	-3,4	2,1	2,0	-0,3	1,7
Inportazioak	-0,2	0,3	-3,5	2,2	2,4	0,2	2,1
Lehen arloa	16,0	3,1	6,5	2,8	1,0	2,2	-1,0
Industria eta energia	1,8	1,0	1,7	1,0	0,8	0,5	0,7
Eraikuntza	2,6	1,6	2,2	1,0	0,9	2,2	1,6
Zerbitzuak	3,0	2,6	2,6	2,5	2,5	2,7	2,6
Balio erantsi gordina	2,8	2,1	2,4	2,1	2,0	2,1	2,1
Ekoizkinen g/ zerga garbiak	1,7	2,3	2,3	2,3	2,2	2,2	2,3
Enplegua	1,8	1,8	2,0	1,9	1,6	1,6	1,5

Oharra: Hiruhilekoko desagregazioa eguneratu gabe dago Eustaten aldetik.
2023ko datuak aurrerapena dira eta 2024ko eta 2025ekoak behin-behineko datuak dira.

EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Apirila

2024							2025				
Eka.	Uzta.	Abuz.	Iraila.	Urria	Azaroa	Abend.	Urt.	Otsa.	Mar.	Apir.	Mai.
99,3	96,4	95,9	98,8	95,1	97,9	96,3	99,4	95,8	94,3	93,5	95,1

X<50
Atzeraldia

50<X<100
Hazkunde leuna

X>100
Hazkunde bizia

EAEko ekonomiaren termometroa 95,1eko balioa hartu zuen maiatzean, eta hazkunde leuneko eremuan mantendu zen. Kontsumoak bilakaera positiboa erakusten jarraitzen du, inflazioaren apaltzeak eta enpleguaren sorrera iraunkorrak bultzatuta. Inbertsioak tonu positiboari eusten dio, eta kanpoko saldoak, ordea, hazkundeari bultzada kentzen jarraitzen du, merkataritza ziurgabetasunaren ondorioz joera aldaketa baten seinale argirik gabe. Sektoreei dagokienez, kanpoko eskariaren ahultasuna manufakturen industriaren jardun eskasean islatzen da bereziki; bestalde, kontsumoaren indarrak zerbitzuen sektorearen dinamismo handiagoa dakar.



ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

EKAINEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025			2025	2026
	II	III	IV		
BPG	2,1	2,1	2,0	2,1	1,7
Barneko azken kontsumoa	2,4	2,3	2,1	2,3	1,8
Familien kontsumoa	2,4	2,4	2,2	2,4	1,8
Administrazioaren kontsumoa	2,1	2,0	2,0	2,0	1,7
Kapital eraketa gordina	2,5	2,5	2,2	2,4	2,1
Barne eskariaren ekarpena	2,4	2,4	2,2	2,3	1,9
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,3	-0,3	-0,2	-0,3	-0,2
Lehen arloa	-0,8	2,0	1,5	0,4	1,2
Industria	0,9	0,6	1,3	0,9	1,4
Eraikuntza	2,6	2,5	1,8	2,1	1,8
Zerbitzuak	2,6	2,5	2,2	2,5	1,8
Balio erantsi gordina	2,2	2,1	2,0	2,1	1,7
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,7	2,0	1,8	1,9	1,7
Lanaldi osoko lanpostuak	1,4	1,5	1,4	1,4	1,1
Landunak (BJA)	1,2	1,1	1,2	1,1	1,0
Langabezia tasa	6,7	6,6	6,7	6,8	6,6

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2026		2025	2026
BBVA	2,3	1,4	Euskal Ganberak	2,2	—
Ceprede	2,3	1,9	Eusko Jaurlaritza	2,1	1,7
Hispalink	2,2	2,3	Laboral kutxa	1,8	—
Caixabank	2,0	—	Confebask	1,8	—

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
BPG	2,7	3,2	2,7	3,3	3,3	3,3	2,8
Kontsumo pribatua	1,7	2,8	2,2	2,6	2,9	3,6	3,7
Kontsumo publikoa	5,2	4,1	5,0	3,5	4,3	3,8	2,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,1	3,0	2,4	3,0	2,1	4,4	4,2
- Aktibo finko materialak	2,4	3,3	2,1	3,5	2,7	4,9	4,5
- Eraikuntzan	3,0	3,5	2,6	3,6	3,8	4,0	2,1
- Ekipamendu ondasunetan	1,1	2,8	0,9	3,2	0,5	6,7	9,0
- Landutako baliabide biologikoak	6,2	5,8	5,2	5,2	6,3	6,3	6,1
- Jabetza intelektualaren produktuak	1,0	1,5	4,1	1,0	-0,5	1,6	3,3
Nazio eskaria (ekarpena)	1,7	2,8	2,4	2,6	2,8	3,4	3,2
Esportazioak	2,8	3,1	1,8	2,8	4,7	3,1	2,7
Inportazioak	0,3	2,4	1,1	1,1	3,7	3,8	4,4

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2026		2025	2026
BBVA Research	2,8	1,8	Repsol	2,4	2,0
ICAE-UCM	2,7	1,8	Cámara Comercio de España	2,4	1,9
Equipo Económico (Ee)	2,6	1,9	Instituto Estudios EconómicoS	2,4	1,8
CEEM-URJC	2,6	1,9	Santander	2,3	1,7
Oxford Economics	2,5	1,7	Funcas	2,3	1,6
CaixaBank Research	2,5	2,1	Intermoney	2,3	1,9
CEPREDE-UAM	2,5	2,2	Consenso (batez bestea)	2,5	1,9
CEOE	2,5	2,0	Espainiako Bankua (2025-03)	2,7	1,9
EthiFinance Ratings	2,5	2,0	Gobernua (2025-04)	2,6	2,2
Universidad Loyola Andalucía	2,5	2,2	ELGA (2025-06)	2,4	1,9
Mapfre Economics	2,5	1,7	Europar Batzodea (2025-05)	2,6	2,0
AFI	2,4	2,2	NDF (2025-04)	2,5	1,8
Metyis	2,4	1,8	AIReF (2025-05)	2,3	1,7

Iturria: Funcas.



ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
AEB	2,9	2,8	2,9	3,0	2,7	2,5	2,1
Txina	5,2	5,0	5,3	4,7	4,6	5,4	5,4
Japonia	1,5	0,1	-0,9	-0,5	0,7	1,4	1,7
Kanada	1,5	1,3	0,1	0,5	1,4	1,9	2,3
Europar Batasuna	0,4	1,0	0,6	0,8	1,0	1,4	1,6
Eurogunea	0,4	0,9	0,5	0,6	0,9	1,2	1,5
Alemania	-0,3	-0,2	-0,1	-0,2	-0,3	-0,2	0,0
Frantzia	0,9	1,2	1,7	1,0	1,1	0,6	0,6
Erresuma Batua	0,4	1,1	0,7	1,1	1,2	1,5	1,3
Italia	0,7	0,7	0,3	0,7	0,6	0,6	0,7
Herbehereak	0,1	1,0	-0,6	0,7	2,0	2,2	2,5

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2025EKO EKAINA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2025	2026	2025	2026	2025	2026
AEB	1,5	1,6	3,0	2,8	4,3	4,6
Japonia	0,8	0,7	2,8	1,6	2,5	2,5
Kanada	1,2	1,1	2,1	2,1	7,1	7,0
Europar Batasuna	1,1	1,4	2,1	1,9	—	—
Eurogunea	1,0	1,1	2,0	1,8	6,4	6,4
Alemania	0,1	1,2	2,1	2,0	6,3	6,2
Frantzia	0,5	0,9	1,0	1,5	7,5	7,7
Erresuma Batua	1,0	1,0	3,2	2,4	4,7	4,9
Italia	0,5	0,7	1,8	1,7	6,2	6,2
Espainia	2,4	1,8	2,3	1,9	10,7	10,4
Herbehereak	1,3	1,1	3,2	2,5	—	—

Iturria: Consensus Forecast.